

## 4 ENPRESAREN EGITURA EKONOMIKO-FINANTZARIOA

4.1 Sarrera.

4.2 Ondarearen ekonomia kontzeptua.

4.3 Ondarearen antolaketa.

4.4 Ondare elementuak eta kontuak.

4.4.1 Kontuen normalizazioa.

4.4.2 Kontu erabilienak eta bere normalizazioa KPOn arabera.

4.5 Enpresaren kontabilitate betebeharrak.

4.6 Enpresaren betebeharrak fiskalak.

4.7 Inbentarioa.

4.8 Balantzea.

4.9 Enpresaren egitura ekonomikoa eta finantzarioa. Egoera Balantzearen egitura.

4.10 Finantza oreka.

4.11 Maniobra fondoa.

4.12 Enpresaren jardura zikloak.

### 4.1 SARRERA.

Enpresek bere jardura burutzen dute, bai produktu bukatuak bihurtzen dituzten lehengaiak erosiz (enpresa industrialak), bai salgaiak salerosiz (merkataritza enpresak), denbora luzez bizirauteko edo handitzeko irabaziak lortzeko helburua dutelarik.

Edozein kasutan ere, enpresak bere baliabide ekonomikoetan eragina duten *transakzioen* kontrola eraman behar du. Kontrol hori lortzen da kontabilitate liburuak izenokotan transakzio guztiak modu ordenatuan erregistratuz, *kontabilitatearen* bidez lortzen dena.

**Transakzioak** bere jardueraren barruan enpresak burutzen dituen eragiketa ekonomiko eta finantzarioak dira. Adibidez: ondasun eta zerbitzuen salerosketak, ordainketak eta kobrantzak, maileguak eskatzea eta ematea, eta abar.

**Kontabilitatea** enpresak egiten dituen transakzioak neurtu, baloratu eta erregistratzen dituen zientzia da, horrela, horien ondorioz ondareak jasotzen dituen egitura eta aldaketei buruzko informazioa zenbait pertsona eta erakundeei (erabiltzaileei) emateko. Kontabilitateak baliabide ekonomikoak besterik ez ditu aztertzen; giza baliabideak alde batera uzten ditu.

### 4.2 ONDAREAREN EKONOMIA KONTZEPTUA.

Enpresa guztiak bere jardura burutu ahal izateko zenbait baliabide ekonomiko dute.

Enpresa oro toki fisiko jakin batan kokatuta dago, *lur* baten gainean eraikitako *eraikuntza* batean okupatzen duen lurrik. Guztietan, orokorrean, *mahaiak*, *aulkiak*, *idazmakinak*, *ordenagailuak*, eta abar daude.

Supermerkatu batean sartzean apalategietan saltzeko prest dauden produktuak ikusten dira. *Salgaiak* dira. Saltzailea, kobratzean, *dirua kutxa* batean sartzen du; normalki diru hori *kreditu* erakunde batean gordailutzen da.

Batzuetan, enpresak saltzen duenean ez die bezeroei berehala kobratzen salmentaren zenbatekoa. Bezeroei kobrantzaren geroratze hau enpresaren aldeko *kobratzeko eskubidea* sortzen du zenbateko horren gainean.

Beste batzuetan enpresa da erosketaren zenbatekoa berehala ordaintzen ez duena, hornitzaileekin zorretan geratzen delarik. Ordainketaren geroratze horrek enpresaren kontrako *ordaintzeko betebeharra* sortzen du.

Aurreko guztia kontuan harturik, honako hau esan dezakegu:

- Eraikuntzak, lurrak, mahaiak, aulkiak, idazmakinak, ordenagailuak, salgaiak, eskudirua, kreditu erakundean gordailatutako dirua eta enpresak dituen beste elementu batzuk, berarentzat ONDASUNAK dira.
- Enpresaren aldeko kobratzeko eskubideak, berarentzat ESKUBIDEAK dira.
- Enpresak, bera ez diren pertsona eta erakundeei (hirugarrenei) zor diena (zorrak), berarentzat BETEBEHARRAK dira.
- ONDASUN, ESKUBIDE eta BETEBEHARREN multzoak enpresaren ONDAREA osatzen du.

Ondarea, pertsona fisiko nahiz juridiko batek momentu jakin batean duen ondasun, eskubide eta betebeharrak zenbatekogarrien multzoa da.

Zenbatekogarria (kuantifikagarria) izateak ondare elementu guztiak moneta unitateetan (eurotan) baloraturik egon behar dutela esan nahi du.

Adibidez, gutako bakoitzak momentu jakin batean gure berezko ondarea dugu: janzteko arropak, liburuak, zorroa, boligrafoak, arkatzak, diru pixka bat...; norbaitek zerbait zor badigu kobratzeko eskubidea dugu; norbaiti zerbait zor badiogu itzultzeko, hau da, ordaintzeko betebeharra dugu.

Ondasun eta eskubideek ondarearen alde positiboa islatzen dute eta betebeharrak alde negatiboa.

Beraz, ondarea ondarearen oinarrizko ekuazioa izenekoaren bidez islatu daiteke:

$$\text{ONDAREA} = \text{ONDASUNAK} + \text{ESKUBIDEAK} - \text{BETEBEHARRAK}$$

### 4.3 ONDAREAREN ANTOLAKETA.

Alde batetik ondasun eta eskubideak eta bestetik betebeharrak banandu nahian, enpresa baten ondarea bi zutabetan adierazten da: AKTIBOA izena hartzen duen ezkerreko zutabean ondasunak eta eskubideak elkartzen dira (ondarearen alde positiboa), PASIBOA izeneko eskuineko zutabean betebeharrak (ondarearen alde negatiboa) elkartzen diren bitartean.

Horrela, enpresa baten ondarea hurrengo moduan antola dezkaegu:

| ONDAREA                 |              |
|-------------------------|--------------|
| AKTIBOA                 | PASIBOA      |
| Ondasunak<br>Eskubideak | Betebeharrak |

Aktibo eta pasiboaren arteko diferentziak ONDARE NETOA, KAPITAL LIKIDOA edo NETO izena hartzen du eta lehen definitutako ondarearen kontzeptuarekin bat dator.

Beraz, aurreko ekuazioa (ONDAREA=ONDASUNAK+ESKUBIDEAK-BETEBEHARRAK) honela formulatu dezakegu:

$$\text{AKTIBOA} = \text{PASIBOA} + \text{GARBIA}$$

AKTIBO eta PASIBOaren arteko diferentziak, GARBIA (NETOA) islatzen du eta *bazkideen jabetzaren balioa* islatzen du, hau da, dauden zorrak ordaindu ondoren geratuko litzatekeen aktiboaren balioa.

#### 4.4 ONDAREAREN ELEMENTUAK ETA KONTUAK.

Ondare elementuak enpresaren ondarea osatzen duten item edo osagaiak guztiak dira. Hau da, ikusi dugun moduan, anitzak diren ondasunak, eskubideak eta betebeharrak.

Enpresa, logikoa denez, edozein momentuan elementu horiek zeintzuk diren eta bakoitzaren balioa zein den ezagutzeko interesa dauka; gainera, elementu bakoitzaren balioak aldaketak jasaten ditu ekitaldi ekonomikoan zehar enpresak burutzen dituen transakzioen ondorioz, eta enpresak, aldaketa horiek ezagutzeko interesa ere badauka. Adibidez, egindako kobrantza eta ordainketaren ondorioz ematen den diruaren mugimendua oso ohikoa da eta berdin gertatzen da enpresak maiz salerosten dituen salgaiekin.

Ondare elementu baten eta bere aldaketen kontrola eramateko eta, enpresan burutzen duen papera edo bertan egon behar duen denbora bezalako irizpideen arabera taldekatu ahal izateko, kontuak erabiltzen dira.

KONTUA ondare elementu baten edo batzuen balioa agertu eta beren aldaketen jarraipena egiteko kontabilitateak erabiltzen duen tresna da.

Jarraipen honek transakzio bakoitzak eragiten dituen gehikuntzak edo urripenak idaztea suposatzen du.

Kontua T moduan irudikatzen da. Marra bertikalak kontua bi zatitan banatzen ditu, ezkerrekoak *zor* eta eskuinekoak *hartzeko* izenak hartzen dutelarik. Ezinbesteko elementuak dira kontuan:

- Irudikatzen duen ondare elementua edo elementuen identifikazioa, kontuari izena ematen diona eta kontuaren titulua deitzen dena.
- Momentu batean egindako transakzioengatik emandako ondare elementua edo elementuen balioaren gehikuntzak edo urripenak; hauek idazpen batzuen bidez islatzen dira eta idazpenak kontuan deitzen dira.
- Data jakin bat arte egindako idazpenen ondorioz ondare elementua edo elementuek duten balioa, kontuaren saldoa deitzen dena. Balio hori data zehatzari dagokio eta zor eta hartzeko aldean batuketan arteko diferentzia da.

ADIBIDEA: enpresa batean dauden aulkiak, mahaiak, apalategiak eta idazmakinak “Altzariak” izeneko kontu baten bidez irudikatzen diren ondare elementuak dira.

Modu honetan, enpresak badaki zein ondare elementuekin hasi zuen ekitaldi ekonomikoa, zein zen bakoitzaren hasierako balioa, zeintzuk izan diren balio horien aldaketak eta, beraz, zein den bakoitzaren balioa ekitaldiaren bukaeran.

## Enpresaren ekonomia

Enpresa gehienetan ekitaldi ekonomikoa urte naturalarekin bat dator.

**ADIBIDEA:** enpresa batek honako kontu hauek eskaintzen ditu 2001-1-1 datan:

| Zor          | Kutxa        | Hartzeko |
|--------------|--------------|----------|
| 1-1: 50.000  | 26-1: 20.000 |          |
| 18-1: 60.000 |              |          |

| Zor         | Banku k/k   | Hartzeko |
|-------------|-------------|----------|
| 1-1: 30.000 | 9-1: 25.000 |          |
|             |             |          |

| Zor          | Salgaiak     | Hartzeko |
|--------------|--------------|----------|
| 1-1: 70.000  | 18-1: 60.000 |          |
| 10-1: 50.000 |              |          |

| Zor            | Garraio el. | Hartzeko |
|----------------|-------------|----------|
| 1-1: 1.500.000 |             |          |
|                |             |          |

| Zor          | Hornitzaileak | Hartzeko |
|--------------|---------------|----------|
| 26-1: 20.000 | 1-1: 40.000   |          |
|              | 10-1: 50.000  |          |

| Zor         | Kred. erak. epe lab. zorrak | Hartzeko |
|-------------|-----------------------------|----------|
| 9-1: 25.000 | 1-1: 70.000                 |          |
|             |                             |          |

Urtarrilean zehar beste batzuen artean, honako eragiketa hauek burutu ditu:

- (1): 9-1. Bankuari zor dion maileguaren 25.000 tx.u. ordaintzen ditu kontu korrontearen bidez.
- (2): 10-1. 50.000 tx. u.ko salgaiak erosi ditu eta ordaindu gabe utzi ditu fakturaren bidez.
- (3): 18-1. 60.000 tx. u.ko salgaiak saldu ditu eta eskudiruan kobratu ditu.
- (4): 26-1. Hornitzaileari 20.000 tx. u. ordaindu dizkio eskudiruan.

Eragiketa horiek erregistratzea eskatzen da.

### 4.4.1 Kontuen normalizazioa.

Ondare elementu bakoitza identifikatzean, agertzen duten errealitate ekonomikoaren izen argi eta adierazgarriak erabili behar dira. Beraz, enpresa desberdinek erositako autoak adierazteko adibidez hurrengo izen desberdinak erabil zitezkeen:

- Autoak eta kamioiak.
- Ibilgailuak.
- Garraio elementuak.

Barietate terminologiko hori ekiditeko, estatu espainiarraren Kontabilitate Plan Orokorra dugu, ondare elementu bakoitza izendatzeko erabiltzen diren izenak homogeneous izateko, hau da, kontuak normaltzeko erabiltzen dena. izateko. Aipatutako K.P.O. "kontuen hiztegi" bat bezalakoa da. Aipatutako adibidean Kontabilitate Plan Orokorra "Garraio elementuak" izendapena erabiltzen du.

### 4.4.2 Kontu erabilienak eta bere normalizazioa Kontabilitate Plan Orokorren arabera.

ONDASUNAK agertzen dituzten kontuak

- 570. Kutxa. Normalean kutxa batean edo mahai baten kajoian gordetzen den eskudirua erregistratzen du.
- 572. Banku eta kreditu erakundeak K/K. Kreditu erakunde bateko kontu korrontean gordailatzen den dirua erregistratzen du.
- 300. Salgaiak. Enpresak erosi eta eraldaketarik gabe saltzen dituen merkantzien balioa erregistratzen du. (Merkataritza enpresak).

- 310.** Lehengaiak. Enpresak gero produktuetan eraldatzeko erosten dituen materialen balioa erregistratzen du. (Industri enpresak).
- 350.** Produktu bukatuak. Enpresak erositako lehengaiak eraldatuz gero bezeroei saltzeko lortzen dituen produktuen balioa erregistratzen du. (Industri enpresak).
- 210.** Lurrak eta ondasun naturalak. Enpresak dituen orubeak edo finken balioa erregistratzen du, bai eraikita, baita eraiki gabe baldin badaude ere.
- 211.** Eraikuntzak. Enpresak dituen eraikuntzen balioa erregistratzen du (eraikuntzaren balioa lursaila kontutan hartu gabe).
- 213.** Makineria. Saltzen dituen produktuak ekoizteko enpresak erabiltzen dituen makinen balioa erregistratzen du (enpresa industrialaren kasuan).
- 216.** Altzariak. Enpresak dituen mahaien, aulkien, kalkulagailuen, idazmakinen eta abarren balioa erregistratzen du.
- 217.** Informazio prozesatzeko ekipamenduak. Enpresak dituen ekipo informatikoen balioa erregistratzen du (ordenagailuak, inprimagailuak, eta abar).
- 218.** Garraio elementuak. Enpresak dituen ibilgailuen balioa erregistratzen du (autoak, furgonetak, kamioiak eta abar).
- 203.** Jabetza industrialak. Jabetza industrialaren manifestazio ezberdinen jabetza, edo erabilera eskubidea edo erabilera ematearen truke ordaindutako zenbatekoa erregistratzen du (patenteak, markak, izen komertzialak, dendaren errotulua eta abar).
- 206.** Aplikazio informatikoak. Informatikako programen jabetza edo erabilera eskubidearen truke ordaindutako zenbatekoa erregistratzen du; honen barnean enpresak berak egindakoak ere sartuko dira.
- 28\_.** Ibilgetuaren amortizazio<sup>1</sup> metatua. Enpresak egindako aktibo ez korrontearen (ibilgetuaren) urteko amortizazioen batuketaren balioa da. Guk “281. Ibilgetu materialaren amortizazio metatua” besterik ez dugu erabiliko.
- 206.** Ondare-tresnatan egindako epe luzeko finantza-inbertsioak. Akzioetan egindako epe luzerako inbertsioak.
- 206.** Epe luzeko zorrak adierazten duten baloreak. Obligazio, bono edo errenta finkoko beste baloretan egindako epe luzerako inbertsioak.

#### ESKUBIDEAK agertzen dituzten kontuak

- 430.** Bezeroak. Enpresaren aldeko kobratzeko eskubideen balioa erregistratzen du, bezeroari kobrantza geroratzeagatik, fakturetan dokumentaturik eta egindako *salgai edo produktu bukatuen salmentengatik* sortu direnak.
- 431.** Bezeroak, kobratzeko merkataritza-efektuak. Enpresaren aldeko kobratzeko eskubideen balioa erregistratzen du, bezeroari kobrantza geroratzeagatik, onartutako truke- letretan dokumentaturik eta egindako *salgai edo produktu bukatuen salmentengatik* sortu direnak.
- 440.** Zordunak Enpresaren aldeko kobratzeko eskubideen balioa erregistratzen du, zordunari kobrantza geroratzeagatik, fakturetan dokumentaturik eta *beste enpresei emandako*

<sup>1</sup> **Amortizazioa**, kontabilitatearen ikuspuntutik, denbora epe batez (urte batez, normalean) ibilgetuaren elementuek jasaten duten balio-galeraren balorapen monetarioa da.

zerbitzuengatik sortu direnak (lokal propioen alokairua, informeak egitea, komisioak, beste batzuentzat egindako garraioak, eta abar).

- 542.** Epe laburreko hartzekoak<sup>2</sup>. Urte bat arteko epean hirugarrenei emandako mailegu eta kredituengatik enpresaren aldeko kobratzeko eskubideen balioa erregistratzen du.

BETEBEHARRAK (ZORRAK) agertzen dituzten kontuak

- 400.** Hornitzaileak. Hornitzaileei ordainketa geroratzeagatik, fakturetan dokumentaturik eta *salgaien edo lehengaien erosketengatik* enpresak zor duen dirua erregistratzen du.
- 401.** Hornitzaileak, ordaintzeko merkataritza-efektuak. Hornitzaileei ordainketa geroratzeagatik, onartutako truke-letretan dokumentaturik eta *salgaien edo lehengaien erosketengatik* enpresak zor duen dirua erregistratzen du.
- 410.** Zerbitzu-emateagatik hartzekodunak. Hartzekodunei ordainketa geroratzeagatik, fakturetan dokumentaturik eta *beste enpresengandik jasotako zerbitzuengatik* enpresak hirugarrenei zor dien dirua erregistratzen du. Jasotako zerbitzu batzuk honako hauek dira: lokalen alokairua, publizitatea, konponketak, aseguru primak, ura, telefono eta argi indarraren hornikuntza, eta abar.
- 475.** Ogasun Publikoa, kontzeptu fiskalengatik hartzekoduna. Administrazio Publikoari oraindik ordaindu gabeko zergengatik enpresak hartutako zorren balioa erregistratzen du.
- 476.** Gizarte Segurantzako erakundeak, hartzekodunak. Gizarte Segurantzarengandik jasotako prestazioengatik, berarekin hartutako zorren balioa erregistratzen du.
- 520.** Kreditu-erakundeekiko epe laburreko zorrak<sup>3</sup>. *Kreditu erakunde (Banku, Aurrezki Kutxa,...) batengandik jasotako* urte bat arteko epean itzuli beharreko mailegu edo kredituengatik enpresak hartutako zorren balioa erregistratzen du.
- 521.** Epe laburreko zorrak. *Kreditu erakundeak ez diren hirugarrenengandik jasotako* urte bat arteko epean itzuli beharreko mailegu edo kredituengatik enpresak hartutako zorren balioa erregistratzen du.
- 523.** Epe laburreko ibilgetu-hornitzaileak. *Ibilgetuaren elementuak (lurrak, eraikuntzak, makineria, altzariak, aplikazio informatikoak, eta abar) erosteagatik* hartutako urte bat arteko epean ordaindu beharreko zorren balioa erregistratzen du.
- 170.** Kreditu-erakundeekiko epe luzeko zorrak. *Kreditu erakunde (Banku, Aurrezki Kutxa,...) batengandik jasotako* urte bat baino luzeagoko epean itzuli beharreko mailegu edo kredituengatik enpresak hartutako zorren balioa erregistratzen du.
- 171.** Epe luzeko zorrak. *Kreditu erakundeak ez diren hirugarrenengandik jasotako* urte bat baino luzeagoko epean itzuli beharreko mailegu edo kredituengatik enpresak hartutako zorren balioa erregistratzen du.

---

<sup>2</sup> Kontabilitate Plan Orokorraren arabera: HARTZEKO (KREDITU) hitza daramaten kontu guztiek enpresari zor dizkieten zenbatekoak biltzen dituzte, beraz, kobratzeko eskubideak dira. Enpresak, edozein arrazoiengatik, zenbateko horiek maileguan eman dizkie hirugarren pertsonaei eta zenbateko horiek zor dizkiete. Adibidez, enpresak ibilgetuaren elementuren bat kreditura saltzen duenean kobratu gabeko zenbatekoa erosleri maileguan ematen dio; zenbateko hori "Ibilgetua besterentzeagatik epe laburreko hartzekoak" kontuan agertuko da.

<sup>3</sup> KPoren arabera ZORRA hitza daramaten kontu guztiek enpresak hirugarrenei zor dizkien zenbatekoak biltzen dituzte. Hirugarren horiek enpresari dirua mailegatu diote, beraz, enpresak zorrak ditu berekiko, hau da, diru hori zor die. Adibidez, *Kreditu erakundeekiko zorrak* kontuak enpresak bankuei, aurrezki kutxei, eta abarrei emandako kreditu eta maileguengatik zor dien dirua biltzen du.

- **173.** Epe luzeko ibilgetu-hornitzaileak. *Ibilgetuaren elementuak (lurrak, eraikuntzak, makineria, altzariak, aplikazio informatikoak, eta abar) erosteagatik hartutako urte bat baino luzeagoko epean ordaindu beharreko zorren balioa erregistratzen du.*

GARBIA (NETOA) agertzen dituzten kontuak

- **102.** Kapitala. Bai dirutan (diru-ekarpenak), bai ondasun eta eskubide moduan (diruzkoak ez diren ekarpenak), merkataritza sozietateen bazkideek egindako kapital ekarpenen balioa erregistratzen du.
- **100.** Kapital soziala. Bai dirutan (diru-ekarpenak), bai ondasun eta eskubide moduan (diruzkoak ez diren ekarpenak), banakako enpresaren jabeak egindako kapital ekarpenen balioa erregistratzen du.
- **112.** Legezko erreserba (\*). Sozietate Anonimoaren Legeak agintzen diolako, enpresak osatutako erreserben balioa erregistratzen du.
- **113.** Borondatezko erreserbak (\*). Enpresak libreki osatutako erreserben balioa erregistratzen du.
- **129.** Ekitaldiko emaitzak. Ekitaldi ekonomikoan izandako eta oraindik banatu gabe dauden irabazien edo galeren balioa erregistratzen du.

(\*) Erreserbak, enpresak bere jarduera burutzerakoan lortutako eta, enpresan finantzazio iturri moduan txikituta geratzen diren eta, beraz, bazkideen artean banatzen ez diren irabaziekin osatzen dira.

#### 4.5 ENPRESAREN KONTABILITATE BETEBEHARRAK

- Kontabilitate-informazioa normaltzeko beharra.

Enpresak sortzen duen informazioa ez zaie zuzentzen dutenei bakarrik interesatzen, lortzen dituen emaitzek berarekin harremanetan dauden taldeengan ere eragina duelako, eta beraz, talde hauek enpresaren egoera edozein momentuan ezagutzea ahalbidetzen dien informazioa exijitzen dute.

Akziodunak, adibidez, enpresaren emaitzak ezagutu nahiko dituzte, bere akzioengandik lortu behar dituzten dibidenduak horien menpe daudelako. Estatuak ere informazio horrengan interesa izanen du enpresa bakoitzak nazioko ekonomiari gehitzen dion balioa ezagutzeko enpresen datuak behar dituelako; modu berean, horiengan zergak kobratu ahal izateko enpresen irabaziak ezagutu beharko ditu. Gainera, informazio hori interesgarria izanen da balizko inbertitzaileentzat, enpresaren martxaren arabera bertan inbertitu ala ez erabakiko dutelako. Hornitzaileek eta bankuek ere enpresaren egoera ezagutu nahi dute enpresaren kaudimena nolakoa den jakiteko. Modu berean langile eta sindikatuentzat ezinbestekoa da informazio hori enpresarekin hitzarmen kolektiboak negoziatzerakoan.

Aurrekoa lortzeko, irizpideak bateratzea bermatzen duten disposizio batzuk eta enpresa guztiek nahitaez eraman beharreko kontabilitate liburu batzuk existitzen dira. Horrela informazioaren homogeneousuna bermatu eta erabiltzaile guztiek ulertua eta interpretatua izan dadila errazten da. Arauen artean honako hauek nabarmentzen dira:

- Ley 19/1989 de 25 de Julio, de Reforma y Adaptación de la Legislación Mercantil a las Directivas de la Comunidad Europea.
- Real Decreto 1564/1989 de 22 de Diciembre, por el que se aprueba el Texto Refundido de la Ley de Sociedades Anónimas.

- Real Decreto 1643/1990 de 20 de Diciembre, por el que se aprueba el Plan General de Contabilidad, que constituye el marco al que deben acogerse todas las empresas con carácter general y que sirve de referencia al resto de normas contables.
- El Real Decreto 1514/2007, de 16 de noviembre por el que se aprueba el plan General de contabilidad. Reforma y adapta El plan General de Contabilidad a la normativa europea y a la armonización internacional.
- Kontabilitate liburuak.

Uztailaren 25eko 19/1989 Legeak aldatzen duen Merkataritza Kodearen 25 artikulua honako hau dio: enpresaburuek kontabilitate ordenatu bat eraman beharko dute, enpresaren jarduerara egokitua, eragiketa guztien jarraipen kronologikoa eta noizbehinkako balantze eta inbentarioak egitea ahalbidetuko duena. Hori guztirako nahitaez enpresaburuek Egunkari (Eguneroko) Liburu bat, Liburu Nagusi bat eta Inbentario eta Urteko Kontuen beste bat eraman beharko dute. Merkataritza sozietateak, gainera, Akten Liburu bat eramango dute, bertan Batzar Nagusiak eta gainontzeko organoek hartutako akordioak bilduko direlarik. Enpresek nahitaezko liburu hauek Merkataritza Erregistroan aurkeztu beharko dituzte, erabiliak izan aurretik legeztatuak izan daitezela.

### - Egunkari Liburua

Kontabilitatearen nahitaezko liburua da. Merkataritza Kodearen 28. artikulua arabera “Egunkari Liburuak enpresaren ekitaldi ekonomikoari dagozkion eragiketa guztiak egunez egun bilduko ditu. Hilabetea baino luzeagoak ez diren aldiei dagozkien eragiketen totalen idazpen bateratua ere onargarria izango da”.

Egunkari liburua izan da eta oraindik bada enpresak egindako eta ondarearen aldaketak suposatzen duten eragiketa guztien “historia” biltzen duen liburua.

### - Liburu Nagusia

Gaur egun nahitaezkoa ez den liburua dugu. Horregatik gaur egun ez dago legezko araurik liburu hau eraman beharreko moduari buruzkoak.

Bere eginbeharra enpresak kontu desberdinetan egindako eragiketa desberdinak biltzea da eta Egunkari Liburuan egindako idazpenak Liburu Nagusira pasatzean datza. Normalena da kontu bakoitzak orrialde bikoitza okupatzea, ezker aldean ZOR eta eskuinekoan HARTZEKOA agertzen direlarik. Zenbaketa kontuen arabera eta ez orrialdeen arabera eginen da.

### - Inbentario eta Urteko Kontuen Liburua

Kontabilitatearen nahitaezko liburua da. Enpresaburuaren egoitzaren Merkataritza Erregistroan legeztatua eta zigiluz markatua egon beharko da.

Liburu hau enpresaren ondarearen isla fidagarria den Hasiera Balantze zehatzarekin irekiko da. Egunkari Liburuko eragiketak Liburu Nagusira akatsik gabe pasatu direla egiaztatzeko gutxienez hiruhilabeteka Batuketa eta Salduen Egiaztapen Balantzean bilduko dira. Ekitaldiaren bukaeran Ekitaldi Bukaerako Inbentarioa eta Urteko Kontuak honako hauek osatzen dituztelarik: Egoera Balantzea, Galdu-Irabazien Kontua, Ondare netoaren aldaketen egoera-orria, Eskudiru-fluxuen egoera-orria eta Memoria edo Oroitidazkia. Azkeneko bost dokumentu hauek osotasun bat egiten dute eta osatzerakoan helburu nagusia honako hau izan behar da: enpresaren ondarea, finantza-egoera eta emaitzen *irudi fidela* ematea.

## 4.6 ENPRESAREN BETEBEHAR FISKALAK

Enpresak bere jarduera hasterakoan, kontuan hartu behar duen aspektu garrantzitsuenetariko bat zerga zamak (tributuak) dira, periodikoki egin beharreko ordainketak direlako eta bere gastuen zati bat izanen direlako.

### Tributuak eta motak.

Estatuaren diru iturri nagusia dira eta derrigorrezko izaera dute zergadun guztientzat, enpresak barne. Administrazio Publikoak berak exijitzen ditu, gastu publikoa finantzatzeko helburuarekin. Mota ezberdinekoak izan daitezke:

- **Tasak.** Erakunde publiko bati, museo publiko batean sartzea edo hezkuntza zentro publiko batean matrikula egitea bezalako zerbitzu jakin baten kontra-prestazio moduan ordaintzen zaizkio. Enpresen kargurako tasen adibideak honako hauek izan daitezke: espaloietan zeharreko ibilgailuen sar/irtereetako tasa (badoak), aparkaleku eskusiborako edo merkantzien zama-lanetarako bide publikoaren erreserbak eta abar.
- **Kontribuzioak.** Zerbitzu publiko baten truke erakunde publiko bati egiten zaizkion ordainketak, adibidez, argiztapen publikoa.
- **Zergak.** Kontraprestazio zuzena ez duen Administrazioari egiten zaion ordainketa. Ez dute lotura zuzena zerbitzu publiko baten ematearekin edo obra publiko bat egitearekin. Zergak zuzenak eta zeharkakoen artean bereizten dira:
  - **Zerga zuzenak.** Enpresa edota pertsonen gainean aplikatzen dira. Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zerga (PFEZ)<sup>4</sup>, Sozietateen Zerga (SZ)<sup>5</sup> eta Jarduera Ekonomikoen gaineko Zerga (JEZ)<sup>6</sup> dira.
  - **Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zerga.** Izaera pertsonal eta zuzena du eta pertsona fisikoen errenta zergapetzen du, pertsona horien zirkunstantzia pertsonal eta familiarak kontua hartzen dituelarik. Enpresa munduan, zerga hau autonomoek ordaintzen dute.
  - **Sozietateen gaineko Zerga.** Izaera pertsonal eta zuzena du eta sozietateen eta PFEZpean ez dauden beste pertsona juridikoen errenta zergapetzen du.
  - **Jarduera Ekonomikoen gaineko Zerga.** Jarduera ekonomikoak burutze hutsa zergapetzen dun zerga lokala da. Burututako jarduerak enpresakoak, profesionalak edo artistikoak izan daitezke.
  - **Zeharkako zergak.** Ondasun edo zerbitzu bat eskuratzea zergapetzen dute. Balio Erantsiaren gaineko Zerga (BEZ)<sup>7</sup>, Ondare-Transmisioen gaineko Zerga (OTZ)<sup>8</sup> eta ondasun jakin batzuen gaineko zerga bereziak (alkoholak, hidrokarburoak eta tabakoa) dira.
  - **Balio Erantsiaren gaineko Zerga.** Ondasun eta zerbitzuen kontsumoa zergapetu eta azken kontsumitzailearen gainean erortzen den zeharkako zerga da. Enpresak, soilik bitartekari (biltzaile) moduan aritzen dira, bere bezeroei zerga kobratu eta hiruhilabetero Ogasunari ordaintzen diotelako.

<sup>4</sup> Impuesto sobre la Renta de las Personas Físicas (IRPF)

<sup>5</sup> Impuesto de Sociedades (IS)

<sup>6</sup> Impuesto sobre Actividades Económicas (IAE)

<sup>7</sup> Impuesto sobre el Valor Añadido (IVA)

<sup>8</sup> Impuesto sobre Trasmisiones Patrimoniales (ITP)

#### **4.7 INBENTARIOA.**

Ikusi dugu nola enpresa edo gutako edozeinek ondare bat duen baina, behar bada, ez dugu pentsatu nola osatzen den eta zenbaterainokoa den ondare hori. Horretarako, gure ondasun, eskubide eta betebeharren azalpen zehatza emango liguken unitate fisikoen zenbaketa egin beharko genuke, gero elementu horietako bakoitzaren balorazioaren bidez, moneta unitateak bihurtuko liratekeelarik. Enpresa batek modu berean jardungo luke. Unitate fisikoen zenbaketa eta dagokion balorazioa idatziz biltzen da inbentario izeneko dokumentu batean.

Inbentarioa dokumentu bat da non momentu jakin batean ondarea osatzen duten elementuen zerrenda zehatza eta behar den moduan baloraturik agertzen den.

Beraz, inbentarioa enpresaren ondarearen argazkia da, bere osaketa data jakin batean, hau da, une jakin batean islatzen duelako.

Kontuan hartu behar da ondare eta inbentarioaren arteko diferentzia. Ondarea ondasun, eskubide eta betebeharren multzoa da. Inbentarioa elementu horien zerrenda zehaztua eta baloratua da. Enpresa edo pertsona batek ondarea dauka inbentarioa ez egin arren, inbentarioa ondarearen irudikapena momentu zehatz batean delako.

ADIBIDEA

.....helbidean egoitza duen.....enpresaren Inbentarioa, zeina Aktiboa, Pasiboa eta Kapital Likidoa biltzen duen.

| Unit. | KONTZEPTUA                      | Prezioa | Zatikakoa      | Osotara   |
|-------|---------------------------------|---------|----------------|-----------|
|       | AKTIBOA                         |         |                |           |
|       | KUTXA                           |         |                | 30.000    |
|       | Izakinak zenbaketaren arabera   |         |                |           |
|       | BANKU K/K                       |         |                | 195.600   |
|       | X bankua, saldoa                |         | 120.000        |           |
|       | Y bankua, saldoa                |         | <u>75.600</u>  |           |
|       | BEZEROAK                        |         |                | 162.400   |
|       | A jauna                         |         | 57.000         |           |
|       | B jauna                         |         | <u>105.400</u> |           |
|       | SALGAIAK                        |         |                | 1.055.000 |
| 500   | K produktuaren unitateak        | 120     | 60.000         |           |
| 700   | J artikuluen kilogramoak        | 650     | 455.000        |           |
| 600   | M produktuaren metroak          | 900     | <u>540.000</u> |           |
|       | ALTZARIAK                       |         |                | 182.000   |
| 1     | Bulegoko mahaia                 | 91.000  | 91.000         |           |
| 6     | Metalezko aulkiak               | 4.000   | 24.000         |           |
| 2     | Metalezko artxibadoreak         | 23.000  | 46.000         |           |
| 1     | N markako idatz makina          | 21.000  | <u>21.000</u>  |           |
|       | ERAIKUNTZAK                     |         |                | 800.000   |
|       | Biltegi eta bulegoen lokala     |         |                |           |
|       | LUR ETA ONDASUN NAT.            |         |                | 100.000   |
|       | Aurreko lokala dagoen lur saila |         |                |           |
|       | AKTIBOA OSOTARA                 |         |                | 2.525.000 |
|       | PASIBO                          |         |                |           |
|       | HORNITZAILEAK                   |         |                | 275.000   |
|       | D jauna                         |         | 145.000        |           |
|       | E jauna                         |         | <u>130.000</u> |           |
|       | KRED. ER. EPE LUZ. ZORRAK       |         |                | 250.000   |
|       | F bankua, saldoa                |         |                |           |
|       | PASIBOA OSOTARA                 |         |                | 525.000   |

## LABURPENA

AKTIBOA.....2.525.000

PASIBOA.....525.000

KAPITAL LIKIDOA .....2.000.000

Inbentario honen arabera enpresaren Kapital Likidoa dataren egunean 2.000.000 moneta-unitatekoa da.

Zigilua

.....(e)ko .....(a)ren .....

## 4.8 BALANTZEA.

*Balantzea* enpresaren ondarea denbora une jakin batean eta unitate monetariotan baloraturik agertzen duen dokumentua da.

Balantzea, inbentarioa bezala, enpresaren ondarearen argazki bat da eta enpresaren egoera estatikoa adierazten du, hau da, enpresaren ondarearen egoera momentu batean islatzen du.

Balantzea, enpresaren ondarea agertzeko inbentarioaren alternatiba bat da, kontuak "balantza" moduan jartzean datzalarik:

| BALANTZEA                          |                         |
|------------------------------------|-------------------------|
| AKTIBOA<br>Ondasunak<br>Eskubideak | PASIBOA<br>Betebeharrak |

Ezkerreko aldeak aktiboko elementuak (ondasun eta eskubideak) eta eskuinekoak pasibokoak (betebeharrak) biltzen dituzte. Dakigun bezala aktibo eta pasiboaren arteko diferentzia garbia (netoa) da. Balantzea orekan geratu dadin netoa gutxiago batzen duen aldeari gehituko diogu, hau da pasiboari.

Beraz, ondarearen adierazpena balantzearen bidez honela geratzen da:

| BALANTZEA                          |                                           |
|------------------------------------|-------------------------------------------|
| AKTIBOA<br>Ondasunak<br>Eskubideak | PASIBOA<br>Betebeharrak<br>Garbia (Netoa) |

Lehen ikusitako berdintzan ( $A - P = G$ ) pasiboa beste aldera pasatzen badugu, hurrengo berdintza lortzen dugu:

$$A = P + G$$

Egitura honek, non pasiboa eta ondare garbia berdintzaren alde berdinean agertzen diren, zentzu osoa du kontuan hartzen badugu enpresak finantza baliabideak bi modu desberdinetan jasotzen dituela:

Alde batetik hirugarrenek mailegatzen dizkioten zenbatekoak, betebeharrak eta zorrak osatzen dutenak eta pasibo galdagarria izena hartzen dutena enpresak epe zehatz batean itzuli behar dituelako.

Beste aldetik, jabeen ekarpenak, garbia edo pasibo ez galdagarria osatzen dutena, enpresak jabeen itzuli behar ez dielako kasu berezietan eta enpresaren likidazioan izan ezik.

Horregatik ondare garbia eta pasiboaren batuketari pasiboa ( $P^*$ ) zentzu zabalean deituko dugu. Pasibo honek enpresak jasotzen dituen finantza baliabideen multzoa islatzen du, bai hirugarrenengandik, bai jabeengandik jasotakoak. Kasu honetan  $P^* = P + G$  eta orduan:

$$A = P^* = P + G$$

Aurreko inbentarioari dagokion balantzea honako hau izanen litzateke:

| eguneko BALANTZEA   |           |                             |           |
|---------------------|-----------|-----------------------------|-----------|
| AKTIBOA             |           | PASIBOA (zentzu zabalean)   |           |
| KUTXA               | 30.000    | HORNITZAILEAK               | 275.000   |
| BANKU K/K           | 195.600   | KRED. ERAK. EPE LUZ. ZORRAK | 250.000   |
| BEZEROAK            | 162.400   | KAPITALA                    | 2.000.000 |
| SALGAIAK            | 1.055.000 |                             |           |
| ALTZARIAK           | 182.000   |                             |           |
| ERAIKUNTZAK         | 800.000   |                             |           |
| LUR ETA OND. NATUR. | 100.000   |                             |           |
| AKTIBOA GUZTIRA     | 2.525.000 | PASIBOA GUZTIRA             | 2.525.000 |

Oso garrantzitsua da Aktiboaren batuketa osoa eta Pasiboarena berdinak direla ikustea.

Balantzea, enpresaren ondare egoera momentu jakin batean zehazten duen heinean, hurrengo gaian landuko dugunerako ezinbesteko dokumentua da.

#### 4.9 ENPRESAREN EKONOMIA ETA FINANTZA-EGITURA: EGOERA BALANTZEAREN EGITURA

Aurreko puntuan ikusi bezala, Balantzeak, enpresaren ondarearen adierazpen moduan ematen digun ikuspegia bikoitza da:

Aktibo edo irizpide ekonomikoaren ikuspuntutik, enpresak dituen finantza-baliabideekin bere jardura burutu ahal izateko erosi dituen ondare elementuei buruzko informazioa ematen digu (eraikuntzak, makineria, ibilgailuak, ordenagailuak, salgaiak eta abar). Enpresak egindako inbertsioen<sup>9</sup> materializatzeari buruzko informazioa ematen digu.

Pasibo zentzu zabalean edo finantza irizpidearen ikuspuntutik, enpresaren finantza baliabideen barietatea eta jatorria erakusten dizkigu (egindako erosketengatik zorrak, jasotako maileguak, bazkideen ekarpenak, erreserbak, eta abar). Enpresak bere inbertsioak aurrera eraman ahal izateko dituen finantza-baliabideei buruzko informazioa ematen digu; modu berean, aktiboko ondare elementu ezberdinak eskuratzean erabilitako finantza baliabide mota bakoitzaren jatorriari buruzko informazioa ere ematen digu.

OHARRA. Hemendik aurrera Pasibo aipatzen dugunean bere zentzu zabalarik buruz ari gara (hau da, garbia barruan kontsideratuz).

Bai aktiboari, bai pasiboari izen desberdinak ematen zaizkie:

| AKTIBOA                   | PASIBOA              |
|---------------------------|----------------------|
| KAPITALA FUNTZIONAMENDUAN | FINANTZA ITURRIAK    |
| EGITURA EKONOMIKOA        | EGITURA FINANTZARIOA |
| INBERTSIOA                | FINANTZAKETA         |
| APLIKAZIOA                | JATORRIA             |
| ERABILERA                 | ITURRIAK             |

<sup>9</sup> **Inbertsioa:** etorkizunean irabaziak lortzeko asmoarekin ondare elementu bat edo batzuen eskuratzea.

Aktiboa, beraz, bere jarduera burutzeko beharrezkoak diren enpresaren baliabide ekonomikoetatik ari da (kapitala funtzionamenduan, egitura ekonomikoa, eta abar), pasiboa enpresak lortutako eta bere finantzaziora dedikatutako finantza baliabideen multzoaz ari den bitartean (finantza iturriak, egitura finantzarioa, eta abar). Aktiboa eta pasiboa osatzen ahal duten ondare elementuak asko eta ezberdinak direnez, berauek elementuen elkarketa erosoago eta operatiboagoetan sailkatzeko irizpideren bat finkatzea komenigarria da. Multzo horiek *ondare masak* izena dute eta, elementuak hobe erabiltzeko eta, balantzea aztertu ondoren, ondorioak ateratzeko balioko zaizkigu.

*Ondare masa* bat ondare elementu homogeneoen elkarketa da. Ondare elementu horiek ezaugarri antzekoren batek erlazionatuta egonzen dira.

Adibidez, aktiboak, enpresaren jabetzako ondasun eta zerbitzuak suposatzen dituzten ondare elementuak biltzen ditu, pasiboak, enpresarentzat zorrak eta bazkideek ekarritako fondoak adierazten dituzten ondare elementuak biltzen dituen bitartean.

Ondare elementuak aktiboko ondare masetan taldekatzeko erabilitako ezaugarri bat denbora da, horretarako aktibo baten likidezia kontzeptua erabiltzen delarik. Horrek, praktikan, enpresan denbora luzez (urte bat baino gehiago) egon behar duten aktiboko elementuak, aktibo ez-korrontea izeneko ondare masa batean taldekatzea suposatzen du; beste aldetik, enpresaren ondarean denbora laburra (urte bat gehienez) egon behar dutenak, aktibo korrontea izeneko ondare masan taldekatuko dira.

Adibide bat jarriko dugu bi aktibo mota desberdintzen lagunduko diguna. Suposa dezagun papertegi materiala eta liburuak saltzera dedikatzen den merkataritza enpresa bat. Bere aktiboan lokala, erakusmahai, apalategi eta altzari bezalako elementuak aurkituko ditugu; horiek guztiak, zalantzarik gabe, enpresaren ondarea osatuz zenbait urte iraun behar dute, enpresaren jarduera burutzean modu iraunkorrean erabiliak izateko eskuratzen dira eta, horregatik, *aktibo ez-korrontearen* zati bat dira. Halere, lehen bait lehen saltzeko asmoarekin hornitzaileei erosten zaizkien enpresaren jarduerarekin erlazionatutako salgaiak ere aktiboan agertuko dira: folioak, arkatzak, karpetak, liburuak, baita kobratu gabeko fakturak, eta abar ere. Elementu hauen funtzioa, enpresaren ondarea osatuz ahalik eta denbora gutxien egotea dela garbi dago; desiragarria da ahalik eta lehen saltzea edo kobratzea. Horregatik bere *aktibo korrontearen* zatia dira.

Ondare elementuak pasiboko ondare masetan taldekatzeko ere denbora ezaugarria erabiltzen da, kasu honetan pasibo baten galdagarritasun kontzeptua erabiltzen delarik. Epe laburra eta epe luzea desberdintzen dira, zorra horien mugaeguna urte naturala baino handiagoa edo txikiagoa denaren arabera. Pasiboko elementuak hiru ondare masatan taldekatuko ditugu: ondare garbia, pasiboa ez-korrontea eta pasibo korrontea.

Taldekatze hauek egin ondoren, enpresaren egitura ekonomikoa eta finantzarioa finka daitezke. Beheko adierazpenak ondare masa ezberdinak erakusten ditu.

| EGOERA BALANTZEA                                                                               |                                                                                                |
|------------------------------------------------------------------------------------------------|------------------------------------------------------------------------------------------------|
| AKTIBOA                                                                                        | ONDARE GARBIA ETA PASIBOA                                                                      |
| <b>Aktibo ez-korrontea</b><br>Ibilgetu ukiezina<br>Ibilgetu materiala<br>Ibilgetu finantzarioa | <b>Ondare garbia</b><br>Fondo propioak<br><b>Pasibo ez-korrontea</b><br>Epe luzeko galdagarria |
| <b>Aktibo korrontea</b><br>Izakinak<br>Bihurgarria<br>Erabilgarria                             | <b>Pasibo korrontea</b><br>Epe laburreko galdagarria                                           |

Aurreko adierazpenak balantze baten aktibo eta pasiboko ondare masen sailkapenean gehiago sakontzeko komenigarritasuna erakusten digu. Has gaitezen aktiboarekin.

AKTIBO EZ-KORRONTEA enpresaren jardueran modu iraunkorrean erabiltzeko dauden elementuek osatzen dute. Enpresaren ekoizpen gaitasuna adierazten dute.

Bere iraupena enpresan luzea edo oso luzea da, hau da, enpresari epe luzean lotuta daude eta hiru ondare masetan sailkatzen dira: ibilgetu ukiezina, ibilgetu materiala eta ibilgetu finantzarioa.

- Ibilgetu ukiezina. Substantzia fisikorik gabeko, hau da, izaera ukiezina edo inmateriala duten elementuen multzoa da. Eduki ekonomikoa duten eskubide iraunkorrek osatzen dute eta horrek, etorkizunean diru-sarrerak sortzeko gaitasuna eduki behar dutela erran nahi du.
  - Jabetza industrialak
  - Aplikazio informatikoak
- Ibilgetu materiala. Ukigarriak diren eta ibilera luzea duten eta saltzeko edo beste produktuetan eraldatzeko ez diren elementuak. Enpresaren jarduera burutu ahal izateko erabiltzen dira.
  - Lur eta ondasun naturalak
  - Eraikuntzak
  - Makineria
  - Altzariak
  - Informazio prozesutarako ekipamenduak
  - Garraio elementuak
- Ibilgetu finantzarioa. Finantza izaera duten ondasunek osatzen dute (enpresak beste enpresa batzuei eskuratutako errenta finkoko edo aldagarriko tituluak eta zeinen iraupena urte batekoa baino luzeagoa den).
  - Ondare-tresnetan egindako epe luzeko finantza-inbertsioak
  - Epe luzeko zorra adierazten duten baloreak

AKTIBO KORRONTEA enpresaren jarduera dela eta sarritan berritzen diren elementuek osatzen dute. Normalki ez dira enpresan egoten urte bat baino gehiago.

Aktibo korrontea hiru ondare masetan sailkatzen da: izakinak, bihurgarria eta erabilgarria, bere likidezia gradu txikiagoa edo handiagoa kontuan hartzen delarik.

- Izakinak. Biltegitatu daitezken eta helburua epe laburrean salduta edo kontsumituta izatea duten elementuak.
  - Salgaiak
  - Lehengaiak
  - Produktu bukatuak
- Bihurgarria. Epe laburreko mugaeguna duten enpresaren aldeko kobratzeko eskubideak. Bere balioa epe laburrean dirua bihurtzea espero da.
  - Bezeroak
  - Bezeroak K.M.E.
  - Zordunak
  - Epe laburrerako kredituak
- Erabilgarria. Jadanik dirua diren ondare elementuek osatzen dute.
  - Kutxa, euroak
  - Banku K/K

Pasiboko ondare elementuak, lehenago aipatutako hiru ondare masetan taldekatzen dira. Lehenik eta behin ondare garbia aurkitzen dugu eta bigarren tokian pasibo ez-korrontea. Bi ondare masa hauek oinarritzko finantzazioa osatzen dute, eta enpresaren eskuetan epe luzez (beti ere urte bat baino gehiago) erabilgarriak egonen diren finantza baliabideen ideia ematen digu. Azkenik, hirugarren tokian, pasibo korrontea edo epe laburreko galdagarria dago; bere osagaiak epe laburrean (urte bat edo gutxiago) enpresak ordaindu beharko dituen ordaintzeko betebeharrak dira.

Aipatu bezala, oinarritzko finantzazioa enpresak dituen epe luzeko finantza baliabideen multzoak osatuta dago. Pasiboko elementu horietako batzuek itzultzeko *epe jakin bat ez dutenez*<sup>10</sup>, elementuak bi ondare masa ezberdinetan taldekatzen dira: ondare garbia eta pasibo ez-korrontea, baliabideak jabeak edo bazkideek (ez galdagarria edo fondo propioak) edo hirugarrenek (epe luzeko pasibo galdagarria) jarritakoak diren desberdintzen delarik.

- ONDARE GARBIA, EZ GALDAGARRIA EDO FONDO PROPIOAK: enpresari jabeek edo bazkideek ekarritako kapitalak eta lortutako eta banatu ez diren irabaziekin osatutako erreserbak osatzen dute.

Fondo propioak.

- Kapitala
- Kapital soziala
- Legezko erreserba
- Borondatezko erreserbak

---

<sup>10</sup> Hau gertatzen da bazkideek enpresari kapital moduan egindako ekarpenekin (Kapitala edo Kapital soziala kontuetan biltzen direnak) eta enpresak lortu eta banatu ez dituen irabaziekin (jabeari banakako enpresaburuaren kasuan edo bazkideen artean merkataritza sozietateen kasuan) eta erreserba kontuetan erregistraturik daudenak (Legezko erreserba, Borondatezko erreserba eta abar).

- Ekitaldiko emaitzak

- PASIBO EZ-KORRONTEA EDO EPE LUZEKO PASIBO GALDAGARRIA: enpresak urte bat baino gehiagoko mugaegunean aurre egin behar dien ordaintzeko betebeharrak osatuta dago.

Epe luzeko galdagarria.

- Kreditu erakundeekiko epe luzerako zorrak
- Epe luzerako zorrak
- Epe luzerako ibilgetu hornitzaileak

- PASIBO KORRONTEA EDO EPE LABURREKO PASIBO GALDAGARRIA: enpresak urte bat arteko mugaegunean aurre egin behar dien ordaintzeko betebeharrak osatuta dago.

Epe laburreko galdagarria.

- Hornitzaileak
- Hornitzaileak O.M.E.
- Zerbitzu prestazioagatiko hartzekodunak
- Hazienda Publikoa kontzeptu fiskalengatik hartzekodun
- Gizarte Segurantzaren Organismoak, hartzekodun
- Kreditu erakundeekiko epe laburrerako zorrak
- Epe laburrerako zorrak
- Epe laburrerako ibilgetu hornitzaileak

Beraz, aurreko adibidearen inbentarioa Balantze moduan adierazi dezakegu, hau da, ondare masetan sailkatuta eta K.P.O.k finkatzen duen irizpidearen arabera ordenatuta:

Aktiboa likidezia txikienetik handienera.

Pasiboa galdagarritasun txikienetik handienera):

| EGOERA BALANTZEA               |                  |                                    |                  |
|--------------------------------|------------------|------------------------------------|------------------|
| AKTIBOA                        |                  | ONDARE GARBIA ETA PASIBOA          |                  |
| A) <u>AKTIBO EZ-KORRONTEA</u>  | 1.082.000        | A) <u>ONDARE GARBIA</u>            | 2.000.000        |
| 210. Lur eta ondasun naturalak | 100.000          | FONDO PROPIOAK                     | 2.000.000        |
| 211. Eraikuntzak               | 800.000          | 102. Kapitala                      | 2.000.000        |
| 216. Altzariak                 | 182.000          | B) <u>PASIBO EZ-KORRONTEA</u>      | 250.000          |
| B) <u>AKTIBO KORRONTEA</u>     | 1.443.000        | EPE LUZEKO ZORRAK                  | 250.000          |
| IZAKINAK                       | 1.055.000        | 170. Kred-erakund epe luz zorrak   | 250.000          |
| 300. Salgaiak                  | 1.055.000        | C) <u>PASIBO KORRONTEA</u>         | 275.000          |
| BIHURGARRIA                    | 162.400          | EPE LABURREKO ZORRAK               | 275.000          |
| 430. Bezeroak                  | 162.400          | 400. Hornitzaileak                 | 275.000          |
| ERABILGARRIA                   | 225.600          |                                    |                  |
| 570. Kutxa, euroak             | 30.000           |                                    |                  |
| 572. Banku k/k                 | 195.600          |                                    |                  |
| <b>AKTIBOA GUZTIRA</b>         | <b>2.525.000</b> | <b>OND. GARB. ETA PAS. GUZTIRA</b> | <b>2.525.000</b> |

## Enpresaren ekonomia

Beraz, egoera balantzea dokumentu bat da non, une jakin bateko enpresaren egoera ekonomiko-finantzarioa agertzen den, ondarea osatzen duten elementuak behar bezala sailkatuta eta ordenatuta biltzen direlarik eta, gainera, moneta unitateetan baloratuta daudelarik. EGOERA BALANTZEAREN bi mota desberdin hauen ereduak ditugu.

### EGOERA BALANTZEAREN EREDUA

| AKTIBOA                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                           | ONDARE GARBIA ETA PASIBOA                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                              |
|-----------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------|--------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------|
| <p><b>A) AKTIBO EZ-KORRONTEA</b></p> <p>IBILGETU UKIEZINA<br/>203. Jabetza industrialak<br/>206. Aplikazio informatikoak</p> <p>IBILGETU MATERIALA<br/>210. Lurrak eta ondasun naturalak<br/>211. Eraikuntzak<br/>213. Makineria<br/>216. Altzariak<br/>217. Informazioa prozesatzeko ekipamenduak<br/>218. Garraio-elementuak<br/><u>(281. Ibilgetu materialaren amortizazio metatua)*</u></p> <p>IBILGETU FINANTZARIOA<br/>210. Ondare-tresnetan egindako epe luzeko finantza-inbertsioak<br/>211. Epe luzeko zorra adierazten duten baloreak</p> <p><b>B) AKTIBO KORRONTEA</b></p> <p>IZAKINAK<br/>300. Salgaiak<br/>310. Lehengaiak<br/>350. Produktu bukatuak</p> <p>BIHURGARRIA<br/>430. Bezeroak<br/>431. Bezeroak, kobratzeko merkataritza-efektuak<br/>440. Zordunak<br/>542. Epe laburreko hartzekoak</p> <p>ERABILGARRIA<br/>570. Kutxa, euroak<br/>572. Banku k/k</p> | <p><b>A) ONDARE GARBIA</b></p> <p>FONDO PROPIOAK<br/>100. Kapital soziala<br/>102. Kapitala<br/>112. Legezko erreserba<br/>113. Borondatezko erreserbak<br/>129. Ekitaldiko emaitza</p> <p><b>B) PASIBO EZ-KORRONTEA</b></p> <p>EPE LUZEKO GALDAGARRIA**<br/>170. Kreditu-erakundeekiko epe luzeko zorrak<br/>171. Epe luzeko zorrak<br/>173. Epe luzeko ibilgetu-hornitzaileak</p> <p><b>C) PASIBO KORRONTEA</b></p> <p>EPE LABURREKO GALDAGARRIA**<br/>400. Hornitzaileak<br/>401. Hornitzaileak, ordaintzeko merkataritza-efektuak</p> <p>410. Zerbitzu-imateagatiko hartzekodunak</p> <p>475. Ogasun Publikoa, kontzeptu fiskalengatik hartzekoduna<br/>476. Gizarte Segurantzako erakundeak, hartzekodunak</p> <p>520. Kreditu-erakundeekiko epe laburreko zorrak<br/>521. Epe laburreko zorrak<br/>523. Epe laburreko ibilgetu-hornitzaileak</p> |
| AKTIBO GUZTIRA (A+B)                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                              | ONDARE GARBIA ETA PASIBO GUZTIRA (A+B+C)                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                               |

\* Parentesi artean agertzen den zenbatekoa minus da, hau da aurrekoari kentzen zaio.

OHARRA: Aktiboa likidezia txikienetik handienera eta pasiboa galdagarritasun txikienetik handienera ordenatuta aurkezten dira. Hau da Espainiako Kontabilitate Plan Orokorrak erabiltzen duen irizpidea.

**EGOERA BALANTZEAREN EREDUA**

| AKTIBOA                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                       | ONDARE NETO ETA PASIBOA                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                              |
|---------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------|--------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------|
| <p><b>A) <u>AKTIBO KORRONTEA</u></b></p> <p>ERABILGARRIA<br/> 570. Kutxa, euroak<br/> 572. Bankuak eta kreditu-erakundeak, ageriko k/k, euroak</p> <p>BIHURGARRIA<br/> 430. Bezeroak<br/> 431. Bezeroak, kobratzeko merkataritza-efektuak<br/> 440. Zordunak<br/> 542. Epe laburreko hartzekoak</p> <p>IZAKINAK<br/> 300. Salgaiak<br/> 310. Lehengaiak<br/> 350. Produktu bukatuak</p> <p><b>B) <u>AKTIBO EZ-KORRONTEA</u></b></p> <p>IBILGETU MATERIALA<br/> 210. Lurrak eta ondasun naturalak<br/> 211. Eraikuntzak<br/> 213. Makineria<br/> 216. Altzariak<br/> 217. Informazioa prozesatzeko ekipamenduak<br/> 218. Garraio-elementuak<br/> <u>(281. Ibilgetu materialaren amortizazio metatua)*</u></p> <p>IBILGETU UKIEZINA<br/> 203. Jabetza industrialak<br/> 206. Aplikazio informatikoak</p> <p>IBILGETU FINANTZARIOA<br/> 210. Ondare-tresnetan egindako epe luzeko finantza-inbertsioak<br/> 211. Epe luzeko zorra adierazten duten baloreak</p> | <p><b>A) <u>PASIBO KORRONTEA</u></b></p> <p>EPE LABURREKO GALDAGARRIA<br/> 400. Hornitzaileak<br/> 401. Hornitzaileak, ordaintzeko merkataritza-efektuak</p> <p>410. Zerbitzu-emateagatiko hartzekodunak</p> <p>475. Ogasun Publikoa, kontzeptu fiskalengatik hartzekoduna<br/> 476. Gizarte Segurantzako erakundeak, hartzekodunak</p> <p>520. Kreditu-erakundeekiko epe laburreko zorrak<br/> 521. Epe laburreko zorrak<br/> 523. Epe laburreko ibilgetu-hornitzaileak</p> <p><b>B) <u>PASIBO EZ-KORRONTEA</u></b></p> <p>EPE LUZEKO GALDAGARRIA<br/> 170. Kreditu-erakundeekiko epe luzeko zorrak<br/> 171. Epe luzeko zorrak<br/> 173. Epe luzeko ibilgetu-hornitzaileak</p> <p><b>C) <u>ONDARE GARBIA</u></b></p> <p>FONDO PROPIOAK<br/> 100. Kapital soziala<br/> 102. Kapitala<br/> 112. Legezko erreserba<br/> 113. Borondatezko erreserbak<br/> 129. Ekitaldiko emaitza</p> |
| AKTIBO GUZTIRA (A+B)                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                          | ONDARE GARBIA ETA PASIBO GUZTIRA (A+B+C)                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                             |

\* Parentesi artean agertzen den zenbatekoa minus da, hau da aurrekoari kentzen zaio.

OHARRA: Aktiboa likidezia handienetik txikienera eta pasiboa galdagarritasun handienetik txikienera ordenatuta aurkezten dira.

#### 4.10 FINANTZA-OREKA

Enpresak bere jarduera ekonomikoa *modu egonkorrean* burutu ahal izan dezala beharrezkoa da bere ondarea orekan egotea.

Finantza oreka enpresaren ondarean inbertsioa (aktiboa edo ekonomia egitura) eta finantzaketaren (pasiboa edo finantza egitura) artean harreman egokia dagoen finkatzean datza.

Inbertsioa eta finantzaketaren artean oreka izan dadin hurrengo finantza orekaren printzipioa bete behar da orokorrean:

Enpresak egindako epe luzerako inbertsioak epe luzerako finantza baliabideekin finantzatu behar dira. Epe laburrerako inbertsioak, berriz, epe laburrerako finantza baliabide guztiekin gehi epe luzerakoen zati batekin finantzatu behar dira.

- Epe luzerako inbertsioak

Epe luzerako inbertsioak (aktibo ez-korrontea osatzen dutenak) oinarritzko finantzazioarekin, hau da, ondare garbia eta pasibo ez-korrontearekin (epe luzerako finantza baliabideekin) finantzatu behar dira. Hau horrela da epe luzerako inbertsiotan erabiltzen den dirua berehala berreskuratzen ez delako; diru hori urteetan zehar eta enpresak ekoiztu eta saltzen duen neurrian berreskuratzen da. Aktibo ez-korronteko inbertsio bat egiteko erabili den dirua epe laburrean itzuli behar izanen balitz ezinezkoa izanen litzateke, oraindik inbertsio horrek itzulketa hori egiteko diru nahikoa sortu ez duelako. Hori horrela izanda enpresak ezin izanen luke bere ordainketei aurre egin eta behar bada itxi beharko luke.

Adibidea. Enpresa batek hiru urtetako erabilera estimatuta izanen duen makina bat eskuratzen badu eta erosketa hori finantzatzeko, banku batetik jasotako urte bateko epean itzuli beharreko mailegua erabiltzen badu, inbertsioa eta finantzazioaren artean inolako orekarik ez dagoela garbi dago; begi bistakoa da, bere erabilerak jarduera produktiboan, itzulketa hori egiteko diru nahikoa sortu baino askoz lehenago, ezinbestekoa izanen dela makinaren ordainketa bukatzea.

- Epe laburrerako inbertsioak

Epe laburreko inbertsioak (aktibo korrontea osatzen dutenak) pasibo korrontearekin (epe laburrean itzuli beharreko finantza baliabideekin) gehi oinarritzko finantzazioaren zati batekin (epe luzeko finantza baliabideekin) finantzatu beharko dira.

Epe laburreko inbertsiotan inbertitutako dirua gehienez urte bateko epean berreskuratzea espero denez, aurrera eramateko beharrezkoa den finantzazioa epe laburrekoa izan beharko luke, epe luzeko finantzazioa baino merkeagoa izaten delarik. Halere, enpresaren epe laburreko inbertsio guztiak ez dira epe laburreko baliabideekin finantzatu behar. Horietako zati bat epe luzeko finantza baliabideekin finantzatu behar da ondoko arrazoiengatik:

Inbertitutako dirua berreskuratzea eta epe laburrean itzultzea ahalbidetuko duen epe laburreko inbertsio guztien arrakastaren %100eko ziurtasunik ez dugu. Epe laburreko inbertsio batzuk epe luzeko finantza baliabideekin egin baldin badira eta horietakoren batek huts egiten badu edo diruaren berreskurapena atzeratzen bada, enpresak diru hori galdu ahal izanen du, baina, gutxienez, ez du epe labur batean itzuli beharko (batzuetan ezinezkoa da) eta, egindako, egiten ari den edo egingo dituen beste inbertsio batzuk emandako kobrantzekin itzuli ahal izanen du.


Bigarren arrazoia honako hau da. Epe luzeko inbertsioen erabilera egokiak, erabilgarri, bihurtgarri edo izakinen faltagatik, bere jarduera ekonomikoa eteten ez dela ziurtatzeko, enpresak diru, kobratzeko eskubide, salgaiak, lehengaiak, produktu bukatuak eta abarren kopuru (saldo) jakin bat mantentzea eskatzen du. Kopuru (saldo) guzti horiek epe laburreko inbertsioak baldin badira ere (ondare masa horiek osatzen duten ondare elementuak denbora epe labur batean erabili eta birjartzen dira), enpresak elementu horietako bakoitzaren kopuru minimo mantendu behar du beti, zeinen batuketa segurtasun saldo minimoa izena hartzen duen eta kapital iraunkorrarekin (epe luzean itzuli beharreko finantza baliabideekin) finantzatu behar dena, enpresak bere ondarean modu iraunkorrean, hau da, epe luzera mantendu behar duelako.

#### 4.11 MANIOBRA FONDOA .

Ordainketa etendura<sup>11</sup> eskatzera bultza dezaketen aurreko atalean aipatutako egoerak gerta ez daitezkeen, ondareak inbertsioa eta finantzazioaren arteko oreka agertu behar izateak, enpresak “maniobra fondoa” edo “kapital korrontea” izaten behartzen du.

Maniobra fondoa edo kapital korrontea honela definitzen da: epe luzeko finantzazioarekin (kapital iraunkorrarekin) finantzatzen den epe laburreko inbertsioaren (aktibo korrontearen) zatia, hau da, pasibo ez-korrontearekin finantzatzen den aktibo korrontearen zatia.

Maniobra fondoa grafikoki:



Enpresan finantza orekaren printzipioa bete dadin bere maniobra fondoak positiboa izan behar du, hau da, aktibo korrontek pasibo korrontek baino handiagoa izan behar du, aurreko atalean aipatutako arrazoiengatik, enpresak beti izakin, kobratzeko eskubide, salgai, lehengai, produktu bukatu eta abarren segurtasun saldo minimo bat mantendu behar duelako (kapital korrontea izenekoa eta epe luzeko finantza baliabideak finantzaturik egon beharko duena).

Adibidea. Salgaiak etengabe berritzen den aktibo korrontea dira; hornitzaileei erosi, bezeroei saldu, hauei truke-letrak bidali, truke letrak bankuan kobratu, bertatik dirua atera, hornitzaileei ordaindu, berriro hornitzaileei erosi... Gorpilak horrela jarraitzen du eten gabe; horregatik, merkataritza enpresa batera joaten garenean, beti ikusten dugu apalategietan salgaiak daudela.

<sup>11</sup> **Ordainketa etendura:** egoera bat non enpresak **aldi baterako** ezin dituen epe laburrean dituen zorrak beren mugaegunetan ordaindu.

Periodikoki, saltzen diren neurrian, berri batzuk erosi eta birjarriko dira; baino beti izanen apalategietan salgaiak (gehiago edo gutxiago).

Beraz, biltegian “*beti dauden*” izakinen saldoaren zati bat epe luzeko finantza baliabideekin finantzatu behar da. Berdin gertatzen da aktibo korrontearen gainerako ondare elementuen (kutxa, banku k/k, bezeroak, zordunak, kobratzeko merkataritza efektuak eta abarren) saldoaren zati batekin. Jarduteko modu honek enpresarentzat lasaitasuna suposatzen du, hartutako epe luzean ordaindu beharreko zorrak ordaintzerakoan, arazoak izatea ekiditen dion neurrian. Ondare elementu horietako bakoitzaren saldoaren zati horren batuketa kapital korrontea osatzen du eta aurreko grafikoan agertzen den maniobra fondoaren balioa da.

Beraz, maniobra fondoa edo kapital korrontea bi modutan kalkula daiteke:

• **Kapital korrontea = Aktibo korrontea - Pasibo korrontea**

• **Maniobra fondoa = Oinarrizko finantzazioa - Aktibo ez-korrontea**

Beste modu batean esanda, maniobra fondoa, epe laburrerako zor guztiak (pasibo korrontea) ordaindu ondoren, momentu jakin batean, enpresari geratuko litzaiokeen kapital korrontea da.

#### ADIBIDEA

Repuestos Mágicos enpresaren Egoera Balantzea 02-12-31an m. u.etan adierazita honako hau da:

Egoera Balantzea 08-12-31 datan

| AKTIBOA             |       | ONDARE GARBIA ETA PASIBOA |       |
|---------------------|-------|---------------------------|-------|
| Aktibo ez-korrontea | 1.700 | Ondare garbia             | 1.500 |
| Ibilgetua           | 1.700 | Fondo propioak            | 1.500 |
|                     |       | Pasibo ez-korrontea       | 1.200 |
|                     |       | Epe luzeko galdagarria    | 1.200 |
| Aktibo korrontea    | 2.300 |                           |       |
| Izakinak            | 550   | Pasibo korrontea          | 1.300 |
| Bihurgarria         | 1.500 | Epe laburreko galdagarria | 1.300 |
| Erabilgarria        | 250   |                           |       |
|                     | 4.000 |                           | 4.000 |

Ikusitako bi moduen arabera kalkulatu dugu maniobra fondoa:

• Maniobra Fondoa = Aktibo korrontea - Pasibo korrontea = 2.300 - 1.300 = 1.000 m.u.


• Maniobra Fondoa = Oinarrizko finantzazioa - Aktibo ez-korrontea = 2.700 - 1.700 = 1.000 m.u.

Adibidearen enpresari, epe laburrean zor duen guztia ordaindu ondoren, oraindik 1.000 m.u.ko kapital korrontea geratuko litzaioke. Honek, beraz, 1.000 m.u. horiek kapital iraunkorarekin (ondare garbia eta pasibo ez-korrontearekin) finantzatzen ari direla suposatzen du.


Beraz, enpresaren finantziario iturri eta burutzen dituen inbertsio mota desberdinen arteko harremana onargarria izan dadin, enpresak maniobra fondo egoki bat izan behar du, hau da, enpresaren epe luzerako finantzazioak (kapital iraunkorrak) epe luzeko inbertsio osoa eta epe laburrerako zati bat (kapital korrontea) finantzatu behar ditu. Maniobra fondo hori egokia dela erranen dugu, ordaintze arazoak direla eta, bere mugaegunetan aurre egiten ahal baldin

bazaie eta bere aktibo korrontearen errentagarritasuna murrizten ez bada zorrak ordaintzeko gehiegizko erabilgarria dugulako, beste aktibo errentagarriagoetan inbertitu beharrean.

Finantza orekaren egoera grafikoki



Maniobra fondoa negatiboa izango balitz, aktibo korrontea pasibo korrontea baino txikiagoa dela esan nahiko luke, hau da, aktibo ez-korrontearen zati bat pasibo korrontearekin finantzatzen arituko litzateke; enpresak ez luke kapital korronterik izanen. Egoera hau finantza desorekakoa izanen litzateke eta enpresak arazoak edukiko lituzke bere epe laburreko zorrak ordaintzeko; egoera hau ordainketa etendura eskatuz buka liteke. Demagun orain aktibo ez-korrontea 3.100 m.u.koa dela eta aktibo korrontea 900 m.u.koa. Hurrengo adierazpen grafikoak desoreka egoera hori agertzen du:



#### 4.12 Enpresaren Jarduera zikloak.

Denborari begira, enpresaren jarduera bi ziklotan bana daiteke: ustiapen-zikloa eta kapital-zikloa.

Ustiapen-zikloa urte bateko epearen barruan eta nolabaiteko maiztasunarekin enpresak burutzen dituen jarduerak osatzen dute, hala nola, finantza baliabideak erabiliz lehengaiak eskuratzea, hauen biltegitratzea, bere eraldaketa ekoizpen prozesuaren bidez, produktu

bukatuen biltegitratzea gero bezeroei saldu eta kobratzeko. Kobrantzaren bidez enpresak berreskuratuko du prozesu osoan inbertitutako dirua eta, gainera, etekin bat lortu ahal izanen du.

Beraz ziklo hau dirua-merkantziak-dirua bezala laburtu daiteke, lehenengo pausua merkantziak erosi ahal izateko dirua lortzea delako, gero merkantzia horiek eraldatzeko, eta gero, produktu bukatuak moduan saltzeko eta dirua lortzeko, ziklo berri bat hasten delarik.

Kapital-zikloa berriz urte bat baino luzeagoa den epe batean enpresaren bizitzan eragina duten jardueri dagokie, adibidez, aktibo ez-korrontearen elementuak eskuratzea, eraldaketa prozesuan erabiltzen direnak baina zeinen kontsumoa ustiapen-ziklo desberdinetan burutzen dena.

Kapital-zikloaren parte ere bada ekitaldi ekonomikoa baina luzeagoko epea duten finantza baliabideak eskuratzea, beren erabilera aktibo ez-korrontearen elementuak eskuratu eta ustiapen-zikloen zati bat finantzatzeko ahalbidetzen dutelako. Ziklo honetan inbertitutako dirua urteetan zehar berreskuratzen da aktibo finkoko urteroko amortizazioaren bidez.